



HIRI-ARTISTEI ZUZENDUTAKO DEIALDI IREKIA

Iruñeko Udaleko hurrengo helburuen artean dago hiriko hainbat leku publikoak hobetzea eta atseginago egitea esku-hartze artistikoen bitartez, hiri-arte, grafiti edo muralismo artistikoa izenen pean bildutako sormen-adierazpenen barnean.

Zentzu horretan, Hiri Kontserbazioko Alorrak esku-hartze artistikoen bitartez hobetu daitezkeen hiriko leku publikoen inguruko azterketa egin zuen, eta horien zerrenda egin du Kultura eta Berdintasuneko Alorrarekin batera.

Kultura eta Berdintasuneko Alorrak Deialdi irekia proposatu du Nafarroan jaio eta/edo bizi eta esku-hartze artistikoen garapenean parte hartu nahi duten hiri-artistei zuzenduta, artistekin eta hiriko arte-kolektiboekin informazio- eta komunikazio-bideak irekitzeko asmoz, kalitate artistikoa emateko eta prekarizazio handia jasaten duen artearen zein kulturaren arloan profesionalizazioa bultzatzeko premisapean proiektu horiei aurre egiten laguntzeko.

Deialdi honen ondoren jasotako informazioaz hiriko esku-hartze artistiko bakoitzari aurre eginen zaio, batzorde batek eginen duen aukeraketaren bitartez eta honetan parte hartuko dute Kultura eta Berdintasuneko zein Hiri Kontserbazioko alorretako teknikariek, eta baita hiri-artearen arloko ordezkariak edo beste gizarte eragileak ere. Batzordean baloratuko dira kalitate artistikoa eta proposatutako lekuarekiko egokitasuna, eta esku-hartze artistikoaren enkargua eginen du, kontrataziorako irizpide profesionalekin bat jotuz.

Betekizunak



- Deialdia 18 urtetik gora duten eta Nafarroan jaio eta/edo bizi diren hiri-artistei edo artisten kolektiboari, grafitilariari, muralgileari eta ilustratzaileari zuzenduta dago. (Justifikazio-agiriak aurkeztu beharko dituzte).
- Agiri-txosten bat aurkeztu beharko dute honako hauek bilduta: harremanetarako datuak, curriculum (egilearen prestakuntza ibilbidea eta/edo artistikoa), eta egindako obren irudiak eta/edo asmatutako proiektuen ilustrazioak, zirriborroak, etab. Gehieneko luzera 10 orrikoa izanen da A4 formatuan eta gehienez 5 MB hartuko ditu.
- Dokumentazioa aurkezteko lehen epea 2020ko azaroaren 13ra arte izanen da, nahiz eta bide hau irekita egonen den informazioa eguneratzeko eta harremanetan jartzeko, eta baita egile edo kolektibo berriak aurkezteko ere.
- Dokumentazioa nagusiki formatu digitalean aurkeztuko da, posta elektronikoz cultura@pamplona.es helbidera edo aurrez aurre Kultura eta Berdintasuneko Alorreko bulegoetan (Descalzos kalea 72, 31001 - Iruña).

Iruñean, 2020ko urriaren 15ean